

# KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2020ko martxo

## Aurkibidea

1. Lan merkatua
  2. Inflazioa
  3. Kanpo merkataritza
  4. Munduko merkataritza
  5. E. Batzordearen aurreikuspenak
  6. PMI konposatua
  7. Hilabeteko laburpena
- Eranskina

### 1. Afiliazioaren hazkundera zertxobait areagotu zen otsailen.

Industriaren ahultasuna eraikuntzaren eta zerbitzuen bilakaera onak konpentsatu zuen.

### 2. Prezioak %1,4 igo ziren EAEn urtarrilean.

Argindarraren garestitzeak azaltzen du, neurri handi batean, KPlaren igoera.

### 3. Energiaren salmentak EAeko esportazioak lastatu ditu.

Kanpo saldoa %1,5 handitu da eta 5.300 milioi eurora hurbildu da.

### 4. 2019koa urte txarra izan zen nazioarteko merkataritzarentzat.

AEBen eta Txinaren arteko merkataritza gerrak munduko salmentak baldintzatu zituen.

### 5. Hazkunde ekonomiko egonkorra Europan.

Europako Batzordeak %1,4ko hazkundera aurreikusten du bai 2020an bai 2021ean.

### 6. Europako ekonomia konfiantza berreskuratzen ari da.

PMI konposatuaren indizea 51,6an kokatu zen otsailean, manufakturen susperraldiari esker.

### 7. Hilabeteko laburpena.

Koronabirusa munduko ekonomiaren bilakaera baldintzatzen ari da.





# GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

## Afiliazioaren hazkundera zertxobait areagotu zen otsailean

Gizarte Segurantzako afiliazioaren urte arteko konparazioak positiboa izaten jarraitu zuen 2019ko otsailarekin alderatuta, baita urtarrilekoa baino pixka bat handiagoa ere. Zehazki, haren aldakuntza tasa %1,8koa izan zen; hala, 973.152 kotizatzaile zeuden EAEn, hau da, duela hamabi hilabete baino 17.354 pertsona gehiago. Kopuru horretan, gogora ekarri behar da hil honetako

8.287 zaintzaile ez-profesionalak ere sartzen direla, apirilaz gozotik kopurua handitu egin baitzen, zeren eta, une horretan, Estatuak kolektibo horren kotizazioak, senideak zaintzeagatik, berriz hartzea erabaki zuen. Kolektibo hori gehienbat emakumeek osatzen dute; beraz, kontuan hartu ezean, urte arteko aldakuntza tasa ia erdira jaitziko litzateke, %2,9tik %1,5era.


### GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

#### GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

#### OTSAILEKO AFILIAZIOA


# +%1,8



### GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO

#### EMAKUMEAK


Urte arteko aldakuntza tasa



### GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO


#### GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



## AFILIAZIOA INDUSTRIAN


Urte arteko aldakuntza tasa



Jarduera adarren bilakaerari dagokionez, zenbait adarretan urte arteko erregistro negatiboak jaso ziren. Horietako bat manufaktura industria da, hain zuzen ere afiliatu gehien biltzen dituen. Era berean, merkataritza nabarmentzen da emaitza negatiboen artean, okupazio handiena duen bigarren jarduera izanda, azken hamabi hilabete-

## AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



tan 500 afiliatu inguru galdu dituelako. Aitzitik, osasun arloko jarduerak goranzko joerarekin jarraitu zuten, eta dagoeneko 100.000 afiliatu baino gehiago daude adar horretan, lehen aipatutako zaintzaile ez-profesionalak talde horretan baitaude.

### GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK.


	2019ko otsaila	2020ko otsaila	Aldakuntza
<b>AFILIAZIOA GUZTIRA</b>	<b>955.798</b>	<b>973.152</b>	<b>17.354</b>
Industria manufakturagileak	175.956	174.503	-1.453
Merkataritza	137.069	136.564	-505
Osasun arloko jarduerak	94.409	104.637	10.228
Hezkuntza	74.613	76.632	2.019
Ostalaritza	65.463	67.214	1.751
Administrazio jarduerak	65.017	65.436	418
Eraikuntza	56.380	57.418	1.039
Lanbide jarduerak	56.150	57.437	1.286
Administrazio publikoa	48.208	49.637	1.429
Garraioa	41.796	42.558	762
Etxeko langileak	30.252	29.590	-662
Bestelako zerbitzuak	28.540	28.393	-148
Informazioa eta komunikazioa	22.822	23.312	490
Finantza jarduerak	18.080	17.792	-288
Jarduera artistikoak	16.547	17.423	876
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	12.168	12.030	-137
Or horniketa	5.896	6.281	385
Higiezin jarduerak	4.003	4.161	158
Energia horniketa	1.817	1.520	-297
Erauzketa industriak	556	558	2
Lurraldez kanpoko erakundeak	58	59	1

Iturria: Lana, Migrazioak eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

## Prezioak %1,4 igo ziren EAEn urtarrilean

### KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa




Urte hasieran, KPI indizea %1,4an kokatu zen EAEn, argindarrak bultzatuta. Tasa hori Estatuan jasotakoa baino hiru hamarren handiagoa da. Hori horrela izanda, prezioak hiru hilabetez jarraian igo dira, azaroan hiru hamarren eta abenduan lau hamarren goratu eta gero.

### KPIAREN BANAKETA


Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2018	2019	2020ko urtarrila	Ekarpena
<b>Inflazio osoa (%100)</b>	1,6	1,0	1,4	1,4
<b>Azpiko inflazioa (%81,4)</b>	0,9	1,0	1,4	1,2
- Elikagai landuak (%13,6)	0,9	0,6	1,9	0,3
- Industria ondasunak (%24,8)	-0,1	0,3	0,6	0,1
- Zerbitzuak (%43,0)	1,5	1,6	1,8	0,8
<b>Hondar inflazioa (%18,6)</b>	4,6	0,8	1,0	0,2
- Landu gabeko janariak (%7,6)	2,9	1,3	4,1	0,3
- Energia (%11,0)	5,9	0,4	-1,0	-0,1

### AZPIKO INFLAZIOA



### HONDAR INFLAZIOA



## BRENT MOTATAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



Azken hilabeteetan bezala, talde inflaziogileena garraioa izan zen (%3,9), baina beraren urte arteko tasa 1,8 puntu jaitsi zen aurreko hilabetearekin alderatuta, petrolioaren prezioak behera egin zuelako. Hain zuzen ere, petrolio gordinaren prezioa, koronabirusaren krisiak eramana, 55 dolarren azpitik kokatzera iritsi zen upel bakoitzeko, eta, beraz, hilabete bakar batean %20 baino gehiago jaitsi zen bere balioa. Aitzitik, prezioen goranzko bilakaera tarifa elektrikoaren ondorioz

gertatu zenez, igoera horretan gehien lagundu zuen produktu taldea etxebizitzarena izan zen, 1,6 puntuko igoera bati esker, nahiz eta oraindik balio negatiboetan mantendu zen (-%3,6). Era berean, urtarrileko inflazioan ere nabaritu zen arrainaren eta itsaskiaren prezioen igoera, eta horren ondorioz, elikagaien eta alkoholik gabeko edarien taldea %2,9an kokatu zen. Gainerako taldeek bilakaera neurritsua erakusten dute beren prezioen aldakuntza tasetan.

### KPI TALDE NAGUSIAK

Urte ateko aldakuntza tasa. 2020ko urtarrila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
<b>INDIZE OROKORRA</b>	<b>1,4</b>	<b>1,1</b>	<b>1,4</b>
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,9	2,0	1,7
Edari alkoholdunak eta tabakoa	0,2	0,5	3,5
Jantziak eta oinetakoak	1,1	1,1	0,3
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-3,6	-3,5	0,6
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,9	0,4	0,4
Osasuna	1,0	0,5	0,7
Garraioa	3,9	4,0	3,0
Komunikazioak	0,2	0,1	-1,4
Aisia eta kultura	0,8	0,3	0,0
Hezkuntza	1,4	0,9	0,5
Jatetxeak eta hotelak	2,0	2,0	2,0
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,4	1,4	1,6

Iturria: INE eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.



## Energiaren salmentak EAEko esportazioak lastatu ditu

Eustatek atzerriarekin egindako ondasunen merkataritzaren datuak argitaratu ditu 2019ko laugarren hiruhilekorako, eta, horrenbestez, 2019an egindako truke guztien lehen estimazioa eskuratu da. Estatistika horren arabera, EAEko ekonomiak 25.400 milioi euro inguruko balioa zuten produktuak esportatu zituen 2019an, hots, 2018an baino %0,4 gutxiago. Halaber, inportazioak, berriz, 20.121,5 milioi euro izan


ziren guztira, 2018an kontabilizatutako maila baino %0,8 gutxiago. Jaitsiera horiek gertatu diren arren, merkataritza salerosketek 2018an kontabilizatu ziren maximoetatik hurbil jarraitu zuten, eta kanpoarekiko saldo osoa superabitarioa izan zen, eta 5.275 milioi euroen ingurukoa, hau da, aurreko urtekoa baino %1,5 handiagoa.

### ESPORTAZIOAK GUZTIRA

Mila milioi euro

### URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASA

**-%0,4**





### INPORTAZIOAK GUZTIRA

Mila milioi euro


### MERKATARITZA SALDOA GUZTIRA

Mila milioi euro



## ENERGIAKO ESPORTAZIOAK


Mila milioi euro



Europako bazkide nagusiek (Alemania, Frantzia, Erresuma Batua eta Italia) dinamismo txikiagoa erakutsi zuten arren, Europar Batasuna berriz ere izan zen EAEko esportazioen helmuga nagusia. Izan ere, eremu horrek atzerrira egindako salmenta guztien %68,0 baino gehiago bereganatu zuen eta hazkundea %3,8 izan zen. Datu hori %5,2ra igotzen da produktu energetikoak alde batera utziz gero, horiek baitira guztizko esportazioen beherakadaren eragile nagusiak. Ekipamendu ondasunen salmenta izan zen aurrerapen horren sustatzaile nagusia; izan ere, saldutako ondasun guztien %47,3 bildu zuten eta %11,8 hazi ziren.


## ENERGIAZ BESTELAKO ESPORTAZIOAK

Mila milioi euro




## ESPORTAZIOAK ERRESUMA BATURA

Urte arteko aldakuntza tasa




## ESPORTAZIOAK ALEMANIARA

Urte arteko aldakuntza tasa



## ESPORTAZIOAK FRANTZIARA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.



# MUNDUKO MERKATARITZA

## 2019 urte txarra izan zen nazioarteko merkataritzarentzat

Munduko Merkataritza Antolakundeak argitaratutako informazioaren arabera, 2019an beste herrialde batzuetan saldutako produktuen balioa dolarretan %3,0 murriztu zen aurreko urtearekin alderatuta. Jaitsiera horren zati handi bat AEBak eta Txina protagonista izan ziren merkataritza gerraren ondorioz sortu zen ziurgabetasunak azaltzen du.


Bi herrialde horiek ere muga zergen arloan hartu zituzten erabakien ondorioak jasan bazituzten ere, herrialde horietan eraginak txikiagoak izan ziren aipatutako mundu mailako beherakada baino. Zehazkiago adierazita, AEBetako esportazioak %1,2 murriztu ziren eta Txinan salmentak %0,5 bakarrik igo ziren, aurreko urteetako tasetatik urrun.

### MUNDUKO MERKATARITZA

Biloi euro


### URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASA

**-%3,0**




### AEBETAKO ESPORTAZIOAK

Urte arteko aldakuntza tasa



### TXINAKO ESPORTAZIOAK


Urte arteko aldakuntza tasa






## ALEMANIAKO ESPORTAZIOAK

Urte arteko aldakuntza tasa



## FRANTZIAKO ESPORTAZIOAK


Urte arteko aldakuntza tasa



2019an emaitzarik txarra izan zuten herrialdeetako batzuk europarrak izan ziren; izan ere, aipatutako merkataritza gerrari Erresuma Batua Europar Batasunetik ateratzeko modua (Brexit) adosteko zailtasunak eta automobilgintzaren arazoak gehitu zitzaizkion. Hala izanda, Alemaniak bere esportazioak %4,6 murriztu zituen urteko urtera, Erresuma Batuak bereak %3,6 murriztu zituen bitartean, Espainiak galdu zuen %3,8ko balioaren antzekoa baita. Frantziaren emaitza ez zen hain negatiboa izan (-%2,1). Europatik kanpo deigarria izan zen Japoniako esportazioen beherakada ere, %4,4ra iritsi baitzen.


## JAPONIAKO ESPORTAZIOAK

Urte arteko aldakuntza tasa




## ERRESUMA BATUKO ESPORTAZIOAK

Urte arteko aldakuntza tasa



## ESPAINIAKO ESPORTAZIOAK


Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea.

## Hazkunde ekonomiko egonkorra European

### EUROPAR BATASUNAREN BPGA Urte arteko aldakuntza tasa



Europako Batzordeak neguko txostenean argitaratu dituen aurreikuspenen arabera, Europar Batasunaren hazkundera %1,4koa izango da bai 2020an bai 2021ean. Euroguneak %1,2ko aldakuntza tasa izango du urte horietan eta moneta komuna sortu zenetik bizi duen hazkunde iraunkorreko aldirik luzeena izango da.


Aurrerapen ekonomikoaren eragile nagusia barne eskaria izango da. Enplegua sortzeak, soldatak igotzeak eta politika egokitzaileri eusteak hazkunderari mesede egingo diote. Agregatu dinamikoak kontsumo pribatua, inbertsioa (nagusiki eraikuntzan) eta kontsumo publikoa (bereziki garraioan eta azpiegitura digitaletan) izango dira.

### BPG. EUROPAR BATZORDEKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2019	2020	2021	2020	2021
<b>Europar Batasuna</b>	<b>1,5</b>	<b>1,4</b>	<b>1,4</b>	<b>0,0</b>	<b>0,0</b>
<b>Eurogunea</b>	<b>1,2</b>	<b>1,2</b>	<b>1,2</b>	<b>0,0</b>	<b>0,0</b>
Alemania	0,6	1,1	1,1	+0,1	+0,1
Belgika	1,4	1,2	1,0	+0,2	0,0
Espania	2,0	1,6	1,5	+0,1	+0,1
Frantzia	1,2	1,1	1,2	-0,2	0,0
Italia	0,2	0,3	0,6	-0,1	-0,1
Herbehereak	1,7	1,3	1,3	0,0	0,0
Portugal	2,0	1,7	1,7	0,0	0,0
Irlanda	5,7	3,6	3,2	+0,1	0,0
Grezia	2,2	2,4	2,0	+0,1	0,0
Austria	1,6	1,3	1,3	-0,1	-0,1


## ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




## FRANTZIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



## ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Bestalde, inflazioa maila neurritsu batean eta aurreko aurreikuspenak baino apur bat gorago kokatuko da. Soldaten presioek eta petrolioaren prezioari buruzko goranzko hipotesiek prezioen bilakaera markatuko dute.

Aurreikuspen horiek ziurgabetasuneko testuinguru batean kokatzen dira. Merkataritzako tirabirak eta Brexit-a argitu gabeko zalantzak dira oraindik. Galdera horiei arrisku berriak gehitzen zaizkie, hala nola Irango gatazka eta Covid-19ko izurritea. Azken horri dagokionez, iraupena eta larritasuna ezezagunak dira eta ziurgabetasun handia eragiten dute epe laburreko munduko aurreikuspen ekonomikoetarako.

### KPI. EUROPAR BATZORDEKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2019	2020	2021	2020	2021
<b>Europar Batasuna</b>	<b>1,4</b>	<b>1,5</b>	<b>1,6</b>	<b>+0,1</b>	<b>0,0</b>
<b>Eurogunea</b>	<b>1,2</b>	<b>1,3</b>	<b>1,4</b>	<b>+0,1</b>	<b>+0,1</b>
Alemania	1,4	1,5	1,6	+0,3	+0,2
Belgika	1,2	1,4	1,5	0,0	+0,1
Espainia	0,8	1,2	1,3	+0,1	-0,1
Frantzia	1,3	1,2	1,3	-0,1	0,0
Italia	0,6	0,8	1,0	0,0	-0,1
Herbehereak	2,7	1,4	1,5	0,0	0,0
Portugal	0,3	1,0	1,3	-0,1	-0,1
Irlanda	0,9	1,0	1,3	-0,1	-0,1
Grezia	0,5	0,7	0,9	+0,1	0,0
Austria	1,5	1,6	1,5	0,0	-0,1

Iturria: Europar Batzordea.



# ENPRESARIEN KONFIANTZA


## Europako ekonomia konfiantza berreskuratzen ari da

PMI konposatuaren otsaileko aurrerapenak pentsarazten du Europako ekonomiak konfiantza handiagoko egoera baterantz pausoak ematen jarraitzen duela. Hain zuzen ere, euroaren eremuari esleitutako behin-behineko balioa 51,6 izan da, joan den abuztutik izan duen altuena. Dena dela, ekonomiaren hazkundera oraindik ahula dela iradokitzen du maila horrek. Hauteman den hobekuntza


manufakturen eskutik etorri da, aurreko balioak nabarmen hobetu baitira, 49,1era iritsi arte, hamabi hilabetetan jaso duen daturik onena. Pixkanaka sektore hori hedapen gunera gerturatzeko ari da. Bestalde, zerbitzuen indizea (52,8) aurreko aldien antzeko balioetan mantendu zen, egonkortasun nabarmena erakutsiz.

PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA


2020KO OTSAILA  
51,6




MANUFAKTUREN PMI.EUROGUNEA




ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



### PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




### PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Alemania da Eurogunearen hobekuntzan lagundu duten herrialdeetako bat, Frantziaren datu onekin osatzen dena. Eurogunetik kanpo, deigarria da Japonian izandako beherakada handia, batez ere koronabirusak herrialde hartako turismo sektorean pizten duen ezkortasunaren ondorioz. Halaber, nabarmentzekoa da AEBetako ekonomiarekiko konfiantza galera, 50. mailatik jaitsi baita 2013tik lehen aldiz. Aitzitik, Brexit-aren berehalako agertokia argitu ondoren, Erresuma Batuko indizeak nabarmen egin du gora eta 53,3an kokatu da, urtebete eta erdiko epean izan duen baliorik handiena baita.


### PMI KONPOSATUA. JAPONIA



### PMI KONPOSATUA. AEB



### PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



Iturria: Markit.



# Koronabirusa munduko ekonomiaren bilakaera baldintzatzen ari da

Koronavirusaren hedapena jarduera ekonomikoa baldintzatzen ari da, ez bakarrik Txinakoa, baita mundu osokoa ere, Asiako erraldoiak munduan ekoizten diren produktuen zati handi baten balio kateetan parte hartzen baitu. Herralde horretako ehun produktiboak bizi duen paralsiak munduko ekonomia galgatuko du eta, **NDFren arabera, aurreikusitakoa baino hamarren bat edo bi gutxiago haziko da**, baina gehiago izan litekeela ohartarazi du, gaixotasunaren hedaduraren eta hura kontrolatzeko beharko den denboraren arabera.

Oraingoz, koronavirusaren psikosia ez da heldu iritzi ekonomikoa biltzen duten Europako inkesta ezagunetara. Hala, **sentimendu ekonomikoaren indizea**, Europako Batzordeak egiten duena, puntu erdi bat hobetu zen otsailean, aurreko hilabetearekin alderatuta, eta **103,0an kokatu zen**, argi eta garbi 2000. urteaz geroztik izan duen batez besteko historikoaren gainetik (100,0). Gainera, **datu onenak ematen dituen osagaietako bat kontsumitzailearen konfiantzarena da**, haren batez bestekoa baino bost puntu gorago baitago. Era berean, otsaileko PMI konposatuaren aurrerapena 51,6 izan da, **azken sei hilabeteetako daturik onena baita**. Gainera, aipatzekoa da indizearen bi osagaiak hobera egin zutela hilabete horretan, manufakturakoak bereziki (48,4), azken zortzi hilabeteetako daturik onena lortu baitu.

Testuinguru horretan, **EAEko esportazioek Europakoek baino portaera hobea izan zuten**, iazko azken bi hilabeteetako emaitza onei esker. Izan ere, esportazioak %12,5 igo ziren azaroan eta %4,0, berriz, abenduan. Horren ondorioz, 2019. urteko saldoa -%0,4 diskretu batean geratu zen. Ondasun energetikoen salmenta, bereziki petrolio finduarena, nabarmen murriztu zen, baina gainerako produktuen datu onekin konpentsatu zuten, ekipo ondasunena bereziki.

Lan merkatuan, **Gizarte Segurantzako otsaileko afiliazioak aurreko hilabeteko tonuari eutsi zion eta %1,8 hazi zen urte arteko tasan**, urtarrileko %1,7aren apur bat gainetik. Halaber, zifra horiek profesionalak ez diren zaintzaileen efektutik zuzentzen badira, hobekuntza txiki bat ikusten da urtarrileko datuekin alderatuta. Sektoreka, industrian tonua galdu dela ikus daiteke (-%0,7), baina eraikuntzaren (%1,8) eta zerbitzuen (%2,5) datu onek konpentsatu dute. Era berean, langabezian dauden pertsonen kopurua %2,2 murriztu zen urte batetik bestera, eta kontratuak, ordea, %5,8 handitu ziren 2019ko datuekin alderatuta.

2019ko laugarren hiruhilekoan EAEko ekonomiaren hazkundearen aurrerapena baieztatzea falta bada ere, martxoaren 6an argitaratuko baita, **otsaileko koiunturazko datuek ez dute adierazten EAEko ekonomiaren narriadura nabarmena gertatzen ari denik**. Hala ere, espero izatekoa da Txinako enpresetan jarduera faltagatik gertatzen ari diren botila lepoek hurrengo hilabeteetan EAEko aldagai ekonomikoetan isla izatea, bai eragin zuzena dutelako, bai EAEko ekonomiak Txinak kaltetutako herrialdeekin, hala nola Alemaniarekin, duen harreman estuagatik.

# ESTADÍSTICA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT  
Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2018		2019		
			IV	I	II	III	IV
<b>BPG</b>	<b>3,0</b>	<b>2,2</b>	<b>2,6</b>	<b>2,2</b>	<b>2,2</b>	<b>2,1</b>	<b>2,2</b>
Barneko azken kontsumoa	2,5	—	2,2	2,1	1,9	2,0	—
Familien kontsumoa	2,7	—	2,5	2,2	1,9	1,8	—
Administrazioaren kontsumoa	1,6	—	1,3	2,0	2,0	2,4	—
Kapital eraketa gordina	4,7	—	4,6	4,0	2,5	2,2	—
Barne eskaria	3,0	—	2,8	2,6	2,0	2,0	—
Esportazioak	3,0	—	0,7	-1,4	2,8	-0,9	—
Inportazioak	3,0	—	1,1	-0,8	2,6	-1,0	—
Lehen arloa	7,9	—	15,9	4,6	-0,1	-1,8	—
Industria	2,5	—	0,3	0,6	0,8	0,7	—
Eraikuntza	4,1	—	6,2	4,8	2,9	2,9	—
Zerbitzuak	2,7	—	2,7	2,6	2,6	2,7	—
Balio erantsi gordina	2,8	—	2,4	2,2	2,2	2,1	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	4,9	—	3,8	2,2	1,9	2,0	—
Enplegua	2,6	1,6	2,3	1,8	1,7	1,6	1,3

IRAILEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA  
Urte arteko aldakuntza tasa

	2019		2020			2019	2020
	IV	I	II	III	IV		
<b>BPG</b>	<b>2,1</b>	<b>2,0</b>	<b>1,9</b>	<b>1,8</b>	<b>1,8</b>	<b>2,2</b>	<b>1,9</b>
Barneko azken kontsumoa	2,0	1,9	1,8	1,7	1,7	2,0	1,8
Familien kontsumoa	1,9	1,9	1,8	1,7	1,7	2,0	1,8
Administrazioaren kontsumoa	2,2	2,0	1,8	1,8	1,9	2,1	1,9
Kapital eraketa gordina	2,4	2,5	2,5	2,8	2,9	2,8	2,7
Barne eskariaren ekarpena	2,2	2,1	2,1	2,0	2,1	2,3	2,1
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,1	-0,1	-0,2	-0,2	-0,3	-0,1	-0,2
Lehen arloa	-0,5	-2,0	-4,2	-3,4	-4,7	0,5	-3,6
Industria	0,9	0,7	0,9	1,3	1,5	0,7	1,1
Eraikuntza	2,8	2,8	2,6	2,4	2,4	3,4	2,5
Zerbitzuak	2,6	2,5	2,3	2,1	2,1	2,6	2,3
Balio erantsi gordina	2,1	2,1	1,9	1,8	1,9	2,2	1,9
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,0	1,7	1,8	1,7	1,7	2,0	1,7
Enplegua	1,4	1,3	1,2	1,1	1,1	1,6	1,2

EAĒKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK  
Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020		2019	2020
Confebask (19-12)	2,2	1,9	Hispalink (20-01)	1,9	1,7
Laboral Kutxa (19-12)	2,2	1,8	CEPREDE (20-02)	1,8	1,7
Funcas (06-19)	2,2	—	BBVA (20-01)	1,6	1,5

# ESTADÍSTICA ERANSKINA.ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE  
Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2018		2019		
			IV	I	II	III	IV
<b>BPG</b>	<b>2,4</b>	<b>2,0</b>	<b>2,1</b>	<b>2,2</b>	<b>2,0</b>	<b>1,9</b>	<b>1,8</b>
Kontsumo pribatua	1,8	1,1	1,2	1,1	0,8	1,4	1,2
Kontsumo publikoa	1,9	2,2	2,2	2,3	2,2	2,2	2,2
Kapital finkoaren eraketa gordina	5,3	1,9	3,5	4,7	0,9	2,4	-0,3
- Aktibo finko materialak	6,2	1,7	4,0	5,6	0,7	2,3	-1,5
- Eraikuntzan	6,6	0,8	5,7	4,0	2,1	0,9	-3,5
- Ekipamendu ondasunetan	5,7	2,6	1,4	7,9	-1,8	3,9	0,9
- Jabetza intelektualaren produktuak	1,1	2,8	1,0	0,4	2,0	3,3	5,6
Nazio eskaria (ekarpena)	2,6	1,5	2,0	2,0	1,2	1,8	1,2
Esportazioak	2,2	2,3	0,1	0,4	2,1	3,0	3,7
Inportazioak	3,3	1,2	-0,3	-0,1	-0,2	3,1	2,1

BPGAREN AURREIKUSPENAK .BESTE ERAKUNDE BATZUK  
Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020		2019	2020
AFI	1,9	1,7	IEE	1,9	1,5
Axesor	2,0	1,6	Intermoney	1,9	1,6
BBVA	1,9	1,6	Repsol	1,9	1,5
Bankia	1,9	1,5	Santander	1,9	1,7
CaixaBank	1,9	1,5	Solchaga Recio & asociados	1,9	1,5
Cámara de Comercio España	2,0	1,7	<b>Consenso (media)</b>	<b>1,9</b>	<b>1,6</b>
Cemex	1,9	1,6	Gobierno (10-2019)	2,1	1,8
CEEM-URJC	2,0	1,6	Banco España (12-2019)	2,0	1,7
CEPREDE-UAM	2,0	1,7	Comisión Europea (02-2020)	2,0	1,6
CEOE	1,9	1,6	FMI (01-2020)	2,0	1,6
FUNCAS	1,9	1,5	OCDE (11-2019)	2,0	1,6
ICAE-UCM	1,9	1,7	Consensus Forecast (02-2020)	2,0	1,6

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.



# ESTADÍSTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

## BPGAREN HAZKUNDEA Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2018		2019		
			IV	I	II	III	IV
AEB	2,9	2,3	2,5	2,7	2,3	2,1	2,3
Txina	6,6	6,1	6,4	6,4	6,2	6,0	6,0
Japonia	0,8	0,8	-0,3	0,8	0,8	1,8	0,4
Kanada	1,9	—	1,8	1,5	1,9	1,7	—
Europar Batasuna	2,0	1,4	1,5	1,7	1,4	1,4	1,1
Eurogunea	1,9	1,2	1,2	1,4	1,2	1,2	1,0
Alemania	1,5	0,6	0,6	1,0	0,3	0,6	0,5
Frantzia	1,7	1,2	1,2	1,3	1,5	1,4	0,8
Erresuma Batua	1,3	1,4	1,4	2,0	1,3	1,2	1,1
Italia	0,8	0,2	-0,1	0,1	0,2	0,5	0,0
Herbehereak	2,6	1,7	2,1	1,9	1,6	1,8	1,6

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

## CONSENSUS FORECAST. 2020KO OTSAILA Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2020	2021	2020	2021	2020	2021
AEB	1,9	2,0	2,0	2,1	3,6	3,6
Txina	0,3	0,8	0,6	0,6	2,4	2,4
Japonia	1,6	1,9	1,9	2,0	5,7	5,7
Kanada	1,2	1,4	1,4	1,5	—	—
Europar Batasuna	0,9	1,2	1,2	1,4	7,4	7,3
Eurogunea	0,9	1,1	1,4	1,5	5,1	5,1
Alemania	1,1	1,2	1,3	1,3	8,2	8,1
Frantzia	1,1	1,5	1,6	1,9	4,0	4,1
Erresuma Batua	0,3	0,6	0,8	1,1	9,8	9,7
Italia	1,6	1,6	1,0	1,4	—	—
Herbehereak	1,3	1,3	1,6	1,6	—	—

Iturria: Consensus Forecast.